

UDALERRIEN ADIERAZPENA

EGIA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA, ORAIN!

1936ko uztailaren 18ko kolpe militarrek, Alemania naziak eta Italia faxistak lagunduta, II. Errepublikan legitimoki aukeratutako agintariak kargutik kendu, eta errepresio handiko erregimena inposatu zuen, non eskubide eta askatasun demokratiko guztiak ukatu ziren.

Gerra urteetan, indar kolpistek beldurraren erregimena ezarri zuten: lege bakarrak beraien nahiak izan ziren, eta justizia beraien interesetara moldatu zuten. Harrezkero, eta 80 urte pasatu diren arren, arekak, leizeak eta muinoak genozidio haren lekuko izaten jarraitzen dute.

Gerrarekin batera ez zen errepresioa bukatu. Francoren diktadurak era guztietako eskubide eta askatasunak ukatu, bere sinesbidea eta ideologia inposatu, eta erregimenak ezarritako ofizialtasunaz at zeuden hizkuntzak eta kulturak amorrus jazarri zituen. Errepresio horren ondorio dira 100.000tik gora fusilatu eta desagertutako, ehunka mila erbesteratutako, lan behartuetan esklabo bihurtutakoak, atxilotuak, torturatuak, eta kartzela, klinika edo amaetxetan umeak lapurtutako emakumeak.

Gure herri eta hirietan hori guztia gertutik bizi izan dugu. Krimena eta errepresio ez dira izan guretzat hitzak edo zenbakiak soilik, denborak ezabatu ez dituen bizipenak baizik. Fusilatutako pertsonen izen-abizenak ezagutzen genituen; erbesteratutakoak gure senitartekoak edo lagunak ziren; atxilotuak, espetxeratuak eta umeak lapurtu zizkieten emakumeak auzokoak ziren.

Nuremberg-etik hasi eta gaur egunera arte, nazioarteko hainbat hitzarmenek gertakizun hauek gizateriaren aurkako krimenezat jo dituzte, eta horren ezaugarrietako bat da preskripziozko ez izatea. Nazioarteko hitzarmen horietako batzuk hauek dira:

- 1968-11-26: Gerrako eta Gizateriaren aurkako krimenen preskripzio ezaren Konbentzioa.
- 1972-5-2: Itunen eskubideei buruzko Vienako Batzarra
- 1973-12-3: Gerra eta Gizateriaren aurkako krimenen identifikazio, atxiloketa, estradizio eta zigorren inguruko Nazioarteko Kooperazio printzipioei buruzko NBEko Biltzar Nagusiaren ebazpena
- 1998-6-17: Nazioarteko Gorte Penalaren Estatutua

Arrazoi horiek medio, gure herri eta hirietan Francoren diktadurak eragindako gizateriaren aurkako krimenen kontrako kereilak ipintzea adostu dugu. Ez gabilta mendeku bila, gure herritarrek eskatuta eta giza eskaerak izan beharko luketen egia, justizia eta erreparazio bila baizik.

Asmo horrekin, adierazpen hau sinatzen dugun udalerriek kereilekin aurrera jarraitzeko eta bukaeraraino iristeko asmo trinkoa erakutsi nahi dugu. Horretarako, gure udalen artean lankidetzak eta elkartasun-harremanak ezarri, eta gure erkidegoko eta estatu osoko beste herri eta hiri batzuk gurekin bat egitera gonbidatu nahi ditugu. Izan ere, gure asmoa, guztion artean, azken hamarkadetako krimen frankisten zigorgabetasunarekin bukatzea eta EGIA, JUSTIZIA eta ERREPARAZIOA eskatzea da.